

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Andrea Barnó eskubaloilaria hartu du Londresko Olinpiar Jokoetan parte hartu ondoren

Kirolari nafarrak brontzeko domina erdietsi du Espainiako emakumezkoen eskubaloi-taldearekin

Miércoles, 12 de septiembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina-k Andrea Barnó jokalaria hartu du gaur Nafarroako jauregiko bulego ofizialean 2012ko Londresko Olinpiar Jokoetan parte hartu ondoren. Joko Olinpiko horietan brontzeko domina erdietsi du Espainiako emakumezkoen eskubaloi-taldearekin.

Kirolari nafarra harreran izan da Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari-gerente Prudencio Induráin-ekin batera.

Jokalaria Espainiako selekzioan ohiko jokalaria da, eta talde horrekin hirugarren postua eskuratu du 2011ko Munduko Txapelketan eta laugarrena 2010eko Mundialean. Gainera, 2010eko Europako Txapelketan parte hartu du (selekzioa hamaikagarren sailkatu zen), eta baita 2009ko Mundialean (laugarren) eta 2008ko Europako Txapelketan ere (bigarren).

Andrea Barnó-k 2003/2004 denboraldian debutatu zuen Ohorezko Ligan (ABF Liga) Itxako Kirol Elkartearekin. Talde horrekin, beste titulu batzuen artean, 2011/2012ko Superkopa lortu du; eta Ohorezko Mailako, Erregina Kopako eta Superkopako txapeldun izan da 2009-2010 eta 2010-2011 denboraldietan.



Barcina Lehendakaria, Andrea Barnó eta Prudencio Induráin-ekin.